Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren ALDIZKARIA

BOLETÍN del Observatorio Vasco de Economía Social

Nº18 Zbk2010ko irailak 15 de septiembre de 2010



Gizarte ekonomiaren hedapenean kolaboratuko dute Euskadik, Nafarroak eta Akitaniak

TESS Proiektua, Gizarte Ekonomia Solidarioaren Mugaz Gaindiko Sarea, sortu dute hiru Exekutiboek, sektoreari bultzada emateko lurralde horietan.

Informazio +

Estatuko bosgarren elkarrekiko berme-baltzu bilakatu da Oinarri

Entitate finantzarioak %28 handitu du abal teknikoen formalizazioa, 13,5 milioi eurotik 17,3ra pasaz, eta bikoiztu egin du inbertsio eta finantza-berregituraketa eragiketetara bideratutako abal finantzarioen formalizazioa, 2009an 8 milioi euro izatetik aurten 16 milioi izatera iritsi baita.

Informazio +



Gizarte Ekonomiaren lege-proiektua onartu du Espainiako Gobernuak

Espainiako Ministroen Kontseiluak Gizarte Ekonomia arautuko duen lege-proiektua onartu zuen joan den uztailean. Proposamena Lan eta Immigrazio ministro Celestino Corbachok egin zuen. Kontseiluaren onespenaren ondoren, egitasmoa Parlamentura joango da eta urtea amaitu aurretik behin betiko onartzea espero da.

Informazio +

Egoitza Espainian duen Europar Sozietate Kooperatiboaren lege-proiektua onartu dute

Lege-proiektuaren onarpenarekin sozietate kooperatiboek jarduera transnazionalak indartu ahal izango dituzte eta, tamaina handiko espainiar kooperatiben kasuan, Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin aliantzak egiteko aukera izango dute.

Informazio +



Ezker Gogoak argitalpen berria kaleratu du gizartearen eraldaketa sustatzeko

'Día a día construyendo alternativas. Beste motatako baloreak, harremanak eta praktikak, beste eredu baterako' izeneko aldizkariak gizarte eraldaketako esperientziak biltzen ditu. Horien artean gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioko hainbat ekimen aurki daitezke.

Informazio +



Fagor Arrasatek Gestamp, Gonvarri eta Severstal enpresa errusiarren fabrika berriak hornitu ditu

Enpresa gipuzkoarrak estanpatzeko eta ebakitzeko makinak instalatu ditu Severstal burdingintzaren arloko erraldoi errusiarrarekin batera irekitako bi lantegi berrietan. Horiek Gestamp eta Gonvarri enpresek inauguratu dituzte Kaluga

IV. FOROKOOP foroak enpresa barneko gizarte berrikuntza jorratuko du

Arrasaten egingo da kongresuaren laugarren ekitaldia, urriaren 7an, eta eztabaida-mahaiak egingo dira gizarteko balore berrien, enpresa mailako kooperazioaren eta egun martxan jarritako esperientzia berritzaileen inguruan.

Informazio +



'Buscándonos la vida: Economías alternativas y solidarias' Kongresuaren I. edizioa

Gijongo El Llano Udal Zentroan izango da topaketa, datozen irailaren 23, 24, 25 eta 26an. Izen ematea doanekoa da eta irailaren 17ra arte egin daiteke. Jardunaldiaren leloa da "Nahi dugun gizarterako behar dugun ekonomia".

Informazio +



Irizar taldeak 200 milioi euro fakturatu zituen lehengo seihilekoan, 2009an baino %20 gehiago

Enpresak 2.000 unitate baino gehiagoko salmentak egin zituen,



eskualde errusiarrean, Espainiako Makina-erremintako Fabrikatzaileen Elkartetik (AFM) aditzera eman dutenez.
Informazio +

País Vasco
un alma solidaria

Osasunarekin eta gizarteratzerakin loturiko hainbat proiektuk ‘País Vasco, un alma solidaria’ saria jaso dute

El Correo egunkariak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaiak sailaren babesarekin eta BBKren kolaborazioarekin antolatutako diru-laguntzen lehiaketak 100.000 euro banatuko ditu San Juan de Dios Ospitaleak, Goilurra enpresak eta Argia, Gizakia eta Peñascal fundazioek aurkeztutako ekimenen artean.
Informazio +

300 merkatu nazionalean eta 1.700 atzerrian.
Informazio +

Ipar Kutxa

Ipar Kutxak emaitzak mantendu eta 7,7 milioi euro lortu ditu 2010eko lehen seihilekoan

Banku-jarduera handitzen jarraitzen du entitateak, eta ratio bikainak mantentzea lortu du likidezian (%14,68), berankortasunean (%3tik behera) eta estaldura-tasan ere (%90tik gora). Emaitzek posizio abantailatsuan jartzen dute Ipar Kutxa, finantza sektoreak orokorrean %42,1eko jaitsiera izan baitzuen martxoan.
Informazio +

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipiniz